

ehbildu

Barakaldoko

Herri Programa

Maite

duzun

Barakaldo

EGINGO DUGU.

Aurkibidea

Konponbide berriak udaletik, garai honetarako erronken aurrean

Barakaldok pertsona mailako iraultza behar du	4
Hurbitasuna da politika.....	5
Gauzak txukun egiten badakigu.....	5

Erronka demokratikoa

Parte hartzea eta demokrazia	6
Politika feministak.....	7
Memoria historikoa.....	9

Zainketen erronka

Zainketa-sare komunitarioak	10
Osasun publikoa.....	11
Zaintzaileak ere zaintzea.....	11

Kultura erronka

Kultura-sareen bidezko barne-hartzea	12
Kultura zerbitzuak.....	13
Industria kultura	14
Hezkuntza	14
Eskola eta euskara	15
Euskara	15
Kirola.....	16
Kirol azpiegiturak	17

Ekologia- eta jendarte-erronkak

Mugikortasuna eta hirigintza pertsonaren neurrian	19
Tokiko energia-komunitateak.....	20
Klima-politika.....	21
Hondakinen kudeaketa jasagarria	22
Landa ingurunea	22
Tokiko ekonomia.....	23
Udal-enplegua.....	24
Tokiko merkataritza	25

Berdintasunaren erronka

Gazteria	27
Mendekotasun egoeran dauden pertsonak.....	28
Jendarte politika	29
Udaltzaingoa	30
Pertsonaren mailako etxebizitza-eredua.....	30

Konponbide berriak udaletik, garai honetarako erronken aurrean

Aro aldaketa baten aurrean gaude, konplexutasunez betetako aro baten aurrean, hain zuzen; aldi berean aukera berriei ateak irekitzen zaizkio. Jendarte gero eta konplexuagoen aurrean gaude, eta, beraz, irtenbide konplexuak behar dituzte. Desberdintasun sozialek, kultura-aniztasunak, identitate-aniztasunak, krisi ekologikoak edo biztanleriaren desorekak, inoiz baino gehiago, zeharkako politikak eskatzen dituzte; baliabide ekonomikoak berrantolatzearen aldeko politikak, desberdinen arteko bizikidetzaren aldekoak, ingurumenarekiko harreman berri baten aldekoak; baita despupulatzeko arriskuan dauden udalerrietako herritarren ongizatearen aldekoak ere.

Orain da garaia datozen lau urteetarako ibilbide-orria zehazteko. Jarraian aurkezten dizuguna da EH Bilduk Barakaldorako aurkezten duen oinarri programatikoa, bertako lan sozial eta politikorako gida gisa. Udalgintza komunitarioan oinarritutako praktika politikoa; gure ustez, horrela erantzuten zaie garai honetako egungo erronkei. Udaletik ere aurre egin behar diegu erronka horiei.

Barakaldok pertsona mailako iraultza behar du

Krisi sakoneko garaiak bizi ditugu. Aldaketa-garaiak. Desberdintasunak areagotzen dira, krisi klimatikoa hor dago, biztanleriaren zahartzea... Barakaldo bezalako hiriguneak gero eta ahulagoak dira horrelako krisien aurrean. Bizilagunek irtenbide berriak behar dituzte.

Barakaldo bezalako hirigune bat eraldatzeko motorra izan daiteke eta izan behar du. Gure udalerrian nagusi izan den udal-politikaren ereduak ez du balio egungo erronkei erantzuteko. Eredu zaharkitua da beharrezkoa eta erronka ekosozialei, zainketei edo kulturari aurre egiteko; berdintasuna sustatzen duen praktika demokratikoaren aurkako eredia da. Gure herrian hainbat hamarkadatan nagusi izan den eredu agortua eta zaharkitua gainditzea ez da aukera bat; beharrezkoa da, Barakaldokoentzat ziurtasun-etorkizun bat eraiki nahi badugu.

Aldaketa handiak txikitatik hasten dira. Eraldatu nahi dugu eta eraldatu behar dugu. Politika publikoen kudeaketatik, asko egin daiteke eta egin behar da. Barakaldok aldaketa sakona behar du. Barakaldok eta bertako jendeak etorkizuna behar dute; gauzak beste era batera egin behar dituen etorkizuna.

Guztion espazioa den eremu publikoa, kudeatzeko modu berriak dakartzagu; modu berriak, pertsonak politikaren erdigunean jarriz. Politika pertsonen itzultea baita etorkizuna. Bada garaia jendarteak benetan parte har dezan eragiten dioten erabakietan. Jendartea protagonista izango den udal politikan espazioak eraikitzeke garaia da.

Hurbiltasuna da politika

Entzutea da. Enpatia da. Ulermena da. Elkartasuna. Jendartea eta erakundea batu behar dituen tresna da politika. Auzotarrengandik hurbil dagoen politikaririk gabe, ez dago konponbiderik herritarren beharretarako.

Guztion interesa ardatz izango duen udalgintzaren aldeko apustua egiten dugu. Garaiko erronkei aurre egiteko udalgintza komunitarioa da gurea; herritarren egungo eta etorkizuneko beharrei aurre egitekoa. Horretarako, lidergo berriak behar dira; erakusleho politikari uko egiten dioten lidergoak, eta politika estetiko eta estatikoari uko egiten diotenak. Barakaldon ondo ezagutzen ditugualderdikeria horiek, zoritxarrez. Herriaren beharretan oinarritutako aliantza-politika, eta ez alderdien interesei erantzungo dien politika egin nahi dugu guk.

Batzuei politikaren eta jendartearen arteko distantzia amildegi bihurtzea interesatzen zaien kinka honetan, guk politikaren balioa aldarrikatzen dugu; gertuko politika, udal- eta toki-politika. Gure bizilagunen bizitza hobetzeko tresna da guretzat. Politika garden bat aldarrikatzen dugu, herritarrentzat eskuragarria; gauzak egiteko modu bat, elkarlaneko tresna; lankidetzat bultzatzen dugu, hierarkiarik gabeko espazioak bultzatuz, instituzioaren eta jendartearen artean. Gobernantza partekatua, erabakitzea izango den parte-hartzea; eta, parte-hartzea izango den erabakia.

Gauzak txukun egiten badakigu

Guk egiten duguna esaten dugu eta esaten duguna egiten dugu. Bada garaia Barakaldoko udal politikari kolorea emateko, konponbiderik gabeko hainbat hamarkadako inertzien ondoren. Proiektua badugu eta proposamenak baditugu. Izan ere, Barakaldoko giza eskalako iraultza ez da aukera bat; guztiontzako beharra da!

Erronka demokratikoa

Barakaldok egungo eta etorkizuneko erronkei erantzungo dien gobernantza-eredu berri bat behar du; udal-politikaren egungo praktika alderdikoia gaindituko duen eredu bat. Gobernantza kooperatiboa da gure egiteko modua. Eredu horren ezaugarri nagusia Administrazioa zein herritarrak barnebiltzen dituzten erabakiguneak prestatzea da, erabakitzeko ahalmena partekatzeko; udalerriaren etorkizuna komunitatean eraiki ahal izateko. Gure udalerriek herritarren eta erakundeen arteko aldea murrizteko ez ezik, herritarrak ahalduntzeko, komunitatea harilkatzeko eta jendarte-kohesioa indartzeko ere balio behar dute.

Parte hartzea eta demokrazia

- UEO aren erreforma, Udalaren partaidetza- eta erabaki-organoak arautzen dituen Udal Erregelamendu Organikoa, 2000. urtean onartua.
- Administrazioa eta herritarrak barne hartzen dituzten udal erabakiguneak sortzea.
- Partaidetza-prozesuak abian jartzeko araudi erregulatzailer bat sortzea, prozesu horiek interes alderdikoiei ez erantzuteko, baizik eta zaintzaileen eskaerei erantzuteko.
- Auzotarrei, elkarteei edo udal erakundeei parte hartzeko aukera ematea, udalbatzetan zuzenean esku hartuz.
- Erreferendum bidezko herri-kontsultarako mekanismoak aktibatzea, gai erabakitzaile garrantzitsuetarako.
- Erakunde eta/edo pertsona kulturalen presentzia publikoa eta parte-hartzea bultzatzea eta erraztea.
- Jendarte-egoera ahuleko sektoreetako pertsonen presentzia eta parte-hartzea bultzatzea eta erraztea.
- Ordenantza bidez arautzea udal-komunikabideen erabilera, publizitate instituzionala eta udalaren webgunearen erabilera.

- Gardentasuna sustatzea eta herritarrei informazio publikoa eskuratzeko auke-
ra erraztea.
- Diru publikoaren erabilera arautu, mugatu eta kontrolatuko duen dirulagun-
tzen araudia egitea.
- Aurrez aurreko arreta bermatzea udal-zerbitzu guztietan, eten digitalaren aur-
kako talka-neurri gisa, bereziki adinekoentzat.

Politika feministak

- Berdintasun Arlorako aurrekontu-partida handitzea.
- Erabakiguneetan praktika feminista ezartzea.
- Berdintasunerako udal-kontseilu irekiak, parte-hartzaileak eta erabakitzzaileak
sortzea.
- Emakumeen Etxea eraldaketa sozialerako eta ahalduntze feministarako gunea
izan dadin sustatzea, eta ez Emakumearen Arloko egungo zerbitzuak zentrali-
zatzeko gune fisiko soila.
- Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko informazio- eta arreta-bulegoa sor-
tzea.
- Zerbitzu publikoetan lan egiten duten profesionalen genero-prestakuntza
nahitaezkoa eta jarraitua sustatzea.
- Barakaldoko historian emakumeek izan duten zeregina ikertzeko udal-bekak
sortzea, ondoren jendarteratzeko.
- Hirigunean emakumearen presentzia sinbolikoa bermatzea.
- Gure herriko emakume erreferentzialen biografiak eta historia hurbiltzeko
hezkuntza-programak.
- Kultur jarduera guztietan ikuspegi feminista sartzea.

- Udalerriko publizitate instituzional eta promozionalean gizonen eta emakumeen gorputzen aniztasuna jasotzen duten irudien erabilera sustatzea.
- LGTBI+ komunitateko kolektiboen errealitateari, diskriminazio-egoerei eta haien aurkako gorroto-delituei buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- 24 orduko arretan eta orientazioan espezializatutako zerbitzu bat sortzea, eraso matxistei aurre egiteko.
- Indarkeria matxistaren aurka sentsibilizatzeko udal-kanpainak bultzatzea.
- Indarkeria matxistagatik beren etxebizitza utzi behar duten emakume eta seme-alaba guztiei bizitokiak bermatzea.
- Aparteko eta premiazko partida ekonomikoak bermatzea, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei eta seme-alabei arreta bermatzeko, egoera hori eten ahal izateko.
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta adingabeei laguntza psikologiko espezializatua bermatzea.
- Maskulinitate berriei buruzko lan-espazioak sortzea.
- Autodefentsa feministako ikastaro jarraituak eta doakoak eskaintzea, adin-tarte guztietarako.
- Genero-ikuspegia sartzeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren etorkizuneko berrikuspenean.
- Indarkeria matxistari erantzuteko protokoloa tresna eraginkor bihurtzea eta eraldatzea.
- Mugimendu feministarekin batera, jai-eremuetan gertatzen diren eraso sexisten aurrean jarduteko protokoloak lantzea.
- Emakumeen kirola sustatzea, eta diskriminazio positiboa egiten eta bultzatzen duenarentzat.
- Genero-indarkeriaren unitate bat sortzea udaltzaingoan.

Memoria historikoa

- Frankismoaren aztarnak, izenburuak, kaleak, sinboloak eta abar identifikatzea eta ezabatzea.
- Izen osoa mantentzea edo berreskuratzea, omenaldi gisa pertsona baten izen propioa duen kale bat izendatzeko erabakia hartzen bada.
- Memoria historikoaren esparruan, biktima guztiekiko errespetua barne hartzen duten ekimenak aktibatzea.
- Barakaldoko langileen eta industriaren memoria balioan jartzea.
- Frankismoaren aurkako borroka aitortzeko ekimenak sustatzea.

Zainketen erronka

Datozen urteetan elkartasun-mekanismo komunitarioak aktibatu beharko dira inor atzean ez uzteko. Komunitatearen baliabide guztiak aktibatzea da laguntza komunitarioko sareen helburua, kalteberatasun-egoeran dauden herritarrei laguntzeko. Gutxieneko bizi-baldintzak bermatu behar zaizkie gure artean bizi diren pertsona guztiei. Horretarako, beharrezkoak dira udalaren jendarte-zerbitzuak, eskolak, osasun-sistemako langileak, elkarte-lanaren inguruan antolatutako jendarte zibila eta herri osoaren elkartasuna.

Zainketa-sare komunitarioak

- Barakaldoko migratzaileentzako eta errefuxiatuentzako harrera-plana indartzea eta zabaltzea.
- Erroldatzeko eskubidea bermatzea, oinarritzko jendarte-zerbitzuak eta -prestazioak eskuratzeko ate gisa.
- Etxerik gabeko pertsonentzako aterpetxean sartzeko eta egoteko baldintzak berrikustea, kalean dauden pertsona guztiei estaldura emateko.
- Auzo bakoitzean harremanak ehuntzeko lankidetzaproiektu bat abian jartzea: “hiper-bizilagunen errepublika”.
- “Auzozainak” izeneko zerbitzua sortzea, auzoetako jendarte-boluntarioekin zaintza-programak landuz
- Auzoka auzolanerako udal-proiektuak aktibatzea, zerbitzu publikoen jarduera osagarri gisa, garbiketako, jendarteratzeko, ingurumeneko eta abarreko ekintzetan.
- Auzoetan bizikidetzaprogramak abian jartzea, jendarte-bitartekotzaren eta esku-hartze sozialaren bidez.
- Bakarrik dauden adinekoei etxez etxeko catering programak eskaintzea eguneko zentroen bidez.

Osasun publikoa

- Barakaldon Osasun-Aktiboen Mapa egitea.
- Osasunerako orientazioko udal-zerbitzua sortzea.
- Tokiko politiketan osasun-politikak sartzeko udal-planak diseinatzea.
- Herritarren osasunaren ahalduntzea bultzatzea, partaidetzaren bidez.
- Udalak ESietako Jendarte Kontseiluetan parte har dezan sustatzea.
- Udalaren Osasunaren Jendarte Kontseilua sortzea. Auzoen, taldeen, kolektiboen eta abarren parte-hartzearekin.

Zaintzaileak ere zaintzea

- ELZ, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, publikatzea, zerbitzuan eta langileen lan-baldintzetan hobekuntzak sartuta.
- Zaintzaileentzako atsedeen programak gaitzea.
- Eskoletako oporraldietan udalekuetako eta kanpamenduetako plazak benetako eskarira egokitzea.
- Haur- zein gazte-ludoteka eskaintzea auzo bakoitzean.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroen eta plazen kopurua handitzea.
- Informazio eta Aholkularitza Bulegoa sortzea, etxeko enplegurako eta zaintzarako.

Kultura erronka

Kultura ezinbestekoa da pertsonen garapenerako eta, beraz, komunitatearen ongizaterako. Gainera, integrazioarako eta kohesiorako tresna da, eta datozen urteotako erronka nagusietako bat da Barakaldon. Aldaketa sozialak eta sakonak diren eta kultura mota desberdinak elkarrekin bizi diren jendarte honetan, euskal kultura elementu kohesionatzailea izatearen aldeko apustua egiten dugu; mundura irekitako euskal kultura.

Kultur eragileak kultur bizitzaren eragile protagonista bihurtzea bilatzen dugu. Udalaren zeregina baliabideak eskaintzea, funtzio publikoa bermatzea eta eragileen arteko elkarlana erraztea da.

Kultura-sareen bidezko barne-hartzea

- 2023-2033 Kultur Ekintzaren Plan Estrategikoa egitea, hurrengo hamarkadako udalaren kultura-ekintza definitzeko.
- Kultur Aniztasunaren Arloa sortzea, kulturaren arloko egungo kontzeptua gaindituz.
- Kultura-aniztasuneko programak sartzera ikastetxeetan elkarrengaitan duten udal-programetan.
- Migratuentzako euskara ikasteko udal programa bat abian jartzea, euskararekin eta euskal kulturarekin kulturen arteko harremanak ardatz gisa landuz.
- Eskolaz kanpoko jardueren bidez euskararen erabilera sustatzen duten erakunde eta guraso-elkarteentzako dirulaguntzak indartzea.
- Kultura-aniztasuna garatzeko eta mantentzeko topaguneak bultzatzea, euskal kultura kulturaliki askotarikoak diren pertsoneri hurbilduz.
- Entsegu-espazioak prestatzea, hala nola, “kantagune” eta “dantzagune”.
- Hiriko grafitien eta horma-irudien jaialdi bat antolatzea urtero.
- Barakaldo Antzokira profil berriak erakartzea eta sustatzea, gazteentzako doako programazio berezi baten bidez.

Kultura zerbitzuak

- Beurko – Bagatza auzoa kulturagune batez hornitzea.
- Euskara sustatzeko zentro komunitario bat (Kafe Antzokia) abian jartzea bultzatzea, euskara bere alderdi guztietan sustatzeko erreferentzia-leku gisa.
- Gorostizako Castaños Jauregia eraikin historiko gisa birgaitzea eta gunehori lokal sozial gisa erabiltzea.
- El Regatoko frontoia estaltzea, funtzio anitzeko espazio bihurtuz.
- Kareagako eskola zaharrak tokiko taldeentzako entsegu-erakunde bihurtzea.
- Desertu auzoan, haurrentzako irakurketa gunea duen udal liburutegi baten irekiera.
- Jai nagusientzako eta auzoetako jaietarako udal-azpiegiturak berritzea eta handitzea.
- Kultur jarduerak sustatu nahi duten udalerriko elkarte edo pertsonen Barakaldo Antzokiaren erabilera erraztea.
- Udal Erakusketa Aretoa beste leku batean jartzea, bere proiektua duintzeko.
- Arte eszenikoen liburutegia sortzea.
- Praktika Artistikoak Sortzeko Udal Zentroa sortzea.

Industria kultura

- Barakaldotik Teknikaren eta Industriaren Euskal Museoaren sorkuntza bultzatzea, gure herriko ondare historiko industrialak mantentzeko ardatz kultural gisa.
- Industria-kultura ikastetxeetara hurbiltzeko programak aktibatzea.
- Gure kultura-ondare materiala eta ez-materiala biltzeko, kontserbatzeko eta balioztatzeko azterlanak eta ekimenak bultzatzea eta babestea.

- Industria-ondarearen inbentarioa egitea eta ondare horren berreskurapen integrala eta balioztatzea planifikatzea
- Industriarekin zerikusia duen zinemaldi bat bultzatzea.

Hezkuntza

- Hezkuntzako Udal Kontseilua abian jartzea, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzearekin eta protagonismoarekin.
- Barakaldoko eskola-mapa egitea.
- Matrikulazio-bulego bakarra sortzea, finantzaketa publikoa jasotzen duten ikastetxe guztien artean ikasleen aniztasuna modu ekitatiboan sustatzeko eta segregazioa saihesteko.
- Bigarren hezkuntzako ikastetxe bat irekitzea Ansio-Ibarretan, DBHko ikastetxe publikorik ez duen Barakaldoko eremu bakarrean.
- Auzo bakoitzean haur-eskola publiko bat bermatzea, hezkuntza-eredu berritzaile, euskaldun, propio eta kalitatezkoa izango duena. 0-3 urteko tartetean dagoen eskaria estaltzea.
- Auzo bakoitzeko ikastetxe publiko bat sustatzea.
- Batxilergoaren eskaintza ikastetxe bakar batean biltzea, auzoko institutuak derrigorrezko hezkuntzarako mantenduz.
- Udalak ikastetxeetan genero-aniztasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako ekintzak bultzatzea.
- Hezkuntza-espazioa ikasgelatik haratago zabaltzea, "Herri Hezitzailea" filosofiarekin.
- Familien elkarten foroa sor dadin bultzatzea.
- Hezkuntza-eraikin guztiak behar bezala mantentzea.
- Barakaldoko ikastetxe guztietan hezkidetzak jolastokiak eta patio inklusiboak.

- Diziplina anitzeko lantaldeak abian jartzea horiek behar dituzten ikastetxeetan, ikasleen profilaren arabera (jendarte-hezitzailea, jendarte-langilea, hizkuntzetan komunikatzeko laguntza...).

Eskola eta euskara

- Euskarazko jardueren eta jokoen programak bultzatzea ikastetxe publikoetako jantoki-orduetan.
- Udalak antolatzen dituen eskola-jarduerak euskaraz, inklusiboak eta ez-sexistak direla bermatzea.

Euskara

- Gure herrian hizkuntza eskubideak bermatu eta arautuko dituen euskararen ordenantza ezartzea.
- Euskararen Mahaia abian jartzea, Barakaldoko elkarteen partaidetzarekin, udalerria euskalduntzeko planak diseinatzeko.
- Barakaldon hizkuntza-normalizaziorako ekintzak aktibatzea.
- Euskararen ikaskuntza doakoa izan dadin urratsak ematea.
- Barakaldo Kirolak ikastaroen eta jardueren eskaintza handitzea helduentzat.
- Familian jarduerak euskaraz egitea eta haurrentzako jarduera guztiak euskaraz eskaintzea, hizkuntza-normalizazioa lortzeko helburuarekin.
- Irakasle ez diren ikastetxe publikoetako langileak ere euskaldunak direla bermatzea. Batez ere, ikasleekin harremana dutenak (atezaintza, jantokiko begiraleak...).
- Edozein administrazio edo erakunde izapidetan informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzea.
- Euskararen erabilera jendarteratzeko eta zabaltzeko sentsibilizazio kanpainak eta ekintzak abian jartzea: Barakaldia.

- Euskarazko komunikabide guztiak laguntzea, bultzatzea eta babestea.
- Paisaia linguistiko euskalduna sustatzea eta ikusaraztea.
- Euskaraz sortutako kultura kontsumitzera zuzendutako kanpainak.
- Euskarazko kultura- eta aisialdi-eskaintza hobetzea.
- Euskarazko kultur sorkuntza sustatzea eta babestea.
- Udal-zerbitzu guztietan hizkuntza-eskubideak bermatuta daudela bermatzea.

Kirola

- Udalerrri osorako kirol-plan integral bat sortzea.
- Kiroletako Udal Kontseilua aktibatzea.
- Guraso Elkarteei eskola-kirolaren kudeaketan lagunduko dien kirol-koordinatzailearen figura sortzea, dirulaguntzen eta kirol-planen oinarriei buruzko informazioa emanez.
- Kirol-jardueren eskaintzei buruzko berariazko informazio-plan bat sortzea, kirolariari dirulaguntzen eskaintza berrien berri emateko eta orientatzeko.
- Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan ere federatu gabeko eskola-kirola sustatzea.
- Kirol programak auzoka martxan jartzea: kirol anitzeko sareak, adin guztietan bizimodu osasungarri eta egokiari buruz kontzientziatzeko.
- Kirol-instalazio guztietan irisgarritasuna bermatzea.
- Nerabezaroan kirola sustatzea, integratzeko eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko bitarteko gisa.
- Kirol- eta kultura-arloko topaketa mistoak sor daitezkeen espazioak eta jarduerak bultzatzea, kirola inklusio-mekanisмотzat hartuta.

- Kirol-klub eta -elkarteentzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eguneratzea
- Herri Kirolak sustatu eta sustatzeko plan espezifikoak, herrialdearen nortasun-ikur gisa.
- Bizitza aktiboa sustatzeko kirol-plan espezifikoak, osasun-zentro publikoekin koordinatuta.

Kirol azpiegiturak

- Azpiegituren auditoria egitea eta azpiegitura-gabeziak aztertzea.
- Uretako jarduerak sustatzea, arraunean eta aisialdiko beste jarduera batzuetan aritzeko, hala nola piraguan. Portuko dartsena berreskuratzea, itsasadarrera begira hasteko, herri gisa, itsasadarra udalerrian integratuz.
- Igerileku olinpikoa egiteko asmoz eraiki zen Arrontegi HAPOko azpiegitura abandonatua berreskuratzea, eta bertan funtzio anitzeko kirol-espazio bat sortzea, besteak beste patinaje estaliko pista bat eta rokodromo bat izango dituen.
- Egungo azpiegiturei baliabide hobek ematea udal-kirola garatzeko, azpiegitura-minimoekin, edozein kirol-jarduera egin ahal izateko, baita kirol minoritarioak ere.
- Llano eta Gurutzetako frontoiak estaltzea.
- Eguzkiagirreren kirol-instalazioen zati bat estaltzea.
- Barakaldo C.F taldeko senior mailako gizonetzkoen taldeak Lasesarre futbol-zelaiaren erabilera mugatua sustatzea eta gaunditzea, beste kirol-ekitaldi eta -klub batzuetara irekiz.
- Barakaldori txirrindularitza pista edo belodromoa ematea. Pistaren barrualdean beste instalazio batzuk egon daitezke, gaur egungo kirol-azpiegitura faltari erantzuna emateko.
- Puntu osasungarriei estalkiak jartzea (adinekoentzako gimnastika-aparatuak).

- Arrontegi auzoko Errioxa kaleko kirol-pista estaltzea.
- Urkullu parkearen mantentze egokia bermatzea.

Ekologia- eta jendarte-erronkak

Hamarkada hau funtsezkoa izango da arrisku existentzial nagusietako bati aurre egiteko: krisi ekologikoa eta larrialdi klimatikoa dira arrisku horren adierazpen gordinetako bat. Erronka ekosoziala udal-ekintzaren agenda politikoaren lehen lerrora eraman behar dugu. Krisi klimatikoa errealitate ukaezina da. Denbora amaitzen ari da klima-aldaketaren ondorio suntsitzaileenak arintzeko. Hurrengo legegintzaldiak hartuko duen aldia funtsezkoa izango da borroka ekosozialari dagokionez, eta zeregin handia dago aurretik, udalgintzatik abiatuta.

Mugikortasuna eta hirigintza pertsonaren neurrian

- Super Etxadiak proiektuaren bidez herritarrentzako espazioak berreskuratzea: oinezkoentzako ardatz bat auzo bakoitzean.
- Disuasio-aparkaleku berriak prestatzea.
- Partekatutako autoaren udal-programa abian jartzea.
- Bidegorri-sare oso eta funtzional bat diseinatzea eta martxan jartzea, auzoak eta zerbitzuak hiri-sarearen bidez konektatzeko.
- Bizikleten alokairu publikoko zerbitzu bat bermatzea, ibilgailu motordunen erabiltzaileak eguneroko txirrindularitzara erakartzeko helburuarekin.
- Eskolako eta oinezkoentzako ibilbide konektatuak, seguruak eta irisgarriak martxan jartzea.
- KBus-en 3. linearen maiztasunak handitzea.
- Bizikleta eta patinete seguruak aparkalekuak instalatzea.
- Patinete elektrikoaren erabilera zaintzeko eta kontzientziatzeko udal-kanpainak abian jartzea.
- Taxi zerbitzuarekin eskatutako garraioko udal-hitzarmenak izapidetzea, hala eskatzen duten eremuetan.
- Plan integral baten bidez, itsasadarraren ardatza eta ibaiertzak berreskuratzea.

- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko sare bat zabaltzea, Europako eskakizunak berdindu edo gainditu ahal izateko.
- Hiri-mugikortasun jasangarriaren politika planifikatzea, Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planaren bidez.
- Egungo tren-azpiegiturei (VSF) sozialki eta ekonomikoki errentagarriagoak diren alternatibak bultzatzea.
- Renferen C1 eta C2 lineetako trenbideak lurperatzea Barakaldo parean, eta berdeguneak sortzea espazio liberatuan.
- Mugikortasun-plan, -politika eta -estrategia guztietan genero-ikuspegia eta irisgarritasun unibertsala txertatzea.
- Gure kaleetako eta eraikin publikoetako oztopo arkitektonikoak kentzea, funtsezko zerbitzuetan sarbideak lehenetsiz, hala nola osasun-, kultura- eta hezkuntza-zentroetan.
- Oinezkoentzako pasabide ez-seguruak berrikustea eta egokitzea.
- HAPO (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra) eguneratzea.

Tokiko energia-komunitateak

- Administrazio publikoan mendekotasun energetikoa murrizteko programa abian jartzea.
- Energia berriztagarria ekoizteko instalazioak ezartzeko aukera aztertzea.
- Energia Berriztagarrien Tokiko Agentzia sortzea.
- Tokiko energia-komunitateetan kultura eta parte-hartzea sustatzea.

Klima-politika

- Lurzoru kutsatuen katalogoa berrikustea eta horiek berreskuratzeko plan bat abian jartzea.
- Lindanoz kutsatutako lurzoruak berreskuratzeko plan espezifiko bat diseinatzea eta ezartzea.
- Lurzoruaren karakterizazio-azterketa bat egitea, lur bat mugitzen den bakoitzean kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak identifikatzeko.
- Ahalik eta industria-lurzoru gehien berreskuratzea eta martxan jartzea.
- Legez kanpoko zaborteziak identifikatzea eta ezabatzea.
- Amianto duen Barakaldoko saneamendu-sarea berrikustea eta ezabatzea.
- Argalarioko lindano-gelaxkako edukiari behin betiko konponbidea eman.
- Emisio Txikien Zonaldea ezartzea.
- Udaltzaingoan ingurumen-unitate bat sortzea.
- Baso-politika jasangarria eta baso autoktonoak berreskuratzeko plana abian jartzea.
- Landa-inguruneak eta biodibertsitatea osorik babesteko plana abian jartzea.
- Zuhaitz landaketa bultzatzea, zuhaitz/biztanle ratioa 1/3 lortu arte.
- Berdeguneetan aisialdirako guneak garatzeko plan bat abian jartzea.
- Landare eta intsektu inbaditzaileak erauzteko udal-kanpainak.

Hondakinen kudeaketa jasangarria

- Birziklatzea saritzen duen RECICLOS ekimena abian jartzea, itzultze- eta sari-sistema baten bidez.

- Garbigune ibiltariak jartzea, Garbigunearen osagarri, herritarren artean birziklapena sustatzeko.
- Gehien birziklatzen duten familiei zerga-beherapenak onartzea, etxe bakoitzeko birziklatzeari buruzko datu kuantitatiboak biltzeko ekimenak abian jarritz.
- Birziklatzea sustatzea informazio-kanpainak eginez, hondakin-ekoizle handiak (ikastetxeak, jantokiak, egoitzak, etab.) eta herritar partikularrak bereiziz.
- Auzo bakoitzean saltzaileak dituen bosgarren edukiontzia erabiltzeko beharrezkoak diren poltsa biodegradagarrien erabilera erraztea.
- Ikastetxe guztietan bosgarren edukiontzia jartzea, ekoizle handiak direlako eta birziklatzean hezteko aukera ematen duelako.
- Autokonpostatzea sustatzea maila partikularrean eta udal-mailan.

Landa ingurunea

- Lehen sektoreari lotutako enplegua sortzeko planak bultzatzea.
- Belaunaldien arteko txandakatze-ekintzak bultzatzea inguruko eremuetako ustiategietan, aukera hori enplegu-premiak dituzten edo lehen sektorerako bokazioa duten pertsonen hurbilduz.
- Bertako basoa berreskuratzea, Barakaldo inguratzen duten mendietako baso-jarduera jasangarrierako Plan Tekniko baten bidez.
- Basoak eta bideak garbitzeko, ibilbideak mantentzeko eta seinalezatzeko, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko, eta mendia eta fauna basatia kontrolatzeko koadrila bat sortzea.
- Ibilgailu motordunen mendira sartzeko kontrol-kanpainak aktibatzea.
- Natura-ingurunea sustatuko duen hirigintza-plangintza: landa-ingurunea errespetatzea, oro har, eta Gorostiza eta El Regato hiriguneak, bereziki, hirigintza-araudien barruan.

- Inguruko nekazaritza- eta abeltzaintza-produktuen kontsumoa erraztea, merkaturatze-zirkuitu laburrak eta kontsumo-taldeak bultzatuz.
- Udal-lanpostuen zerrendan baso-agente bat gehiago sartzea.

Tokiko ekonomia

- Krisian dauden enpresei arreta emateko udal-protokolo integral bat sortzea.
- Lankidetzeta-hitzarmenak sustatzea unibertsitateekin, prestakuntza-zentroekin, eskualdeko garapen-agentziekin eta lurraldeko parke teknologikoekin, enpresen berrikuntza eta I+G+Brako kapital-inbertsioa sustatzeko.
- Energia-trantsizioaren barruan dauden industriei laguntzea, energia-kontsumoa eta ingurumen-inpaktua murrizteko proiektuen bidez.
- Trantsizio energetikoaren beharrak aprobetxatzea sektore berriak bultzatzeko: enplegu berdea, energia berriztagarriak, etab.
- Barakaldon enplegua sortzen duten enpresei laguntzea.
- Industria-lurzorua birkalifikatzea saihesteko neurriak adostea.
- Industria-garapenerako potentziala duten espazio estrategikoak identifikatzea eta proiektuak proiektatu eta ezartzea, espezializazio-arloetan oinarrituta.
- Bizkaia – Ibaizabal Parke Teknologikoa sortzea, Burtzeña, Zorrotza Punta eta Zorrozaurre elkartuz, industria aurreratua, teknologikoa, jasangarria eta soziala ardatz hartuta.

Udal-enplegua

- Azpikontrataturako eta pribatizatutako zerbitzu publikoen kudeaketa zuzenagoa eta gardenagoa bermatzea, eta pixkanaka udalekotzea aztertzea, plantilletako zerbitzuak eta lan-baldintzak hobetzeko.
- Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzuari, TAOri eta Kultur-etxeetako eta kiroldegietako langileen publikazioari lehentasuna eman, subrogazio-printzipioa betez.

- Hondakinak kudeatzeko kontratuaren egungo egoera lehentasunez aztertzea eta publikatzea.
- Udal-zerbitzuetan bitartekotasun-tasa murriztea.
- Lanpostu publikoak eta langile publikoen eskubideak eta lan-baldintzak berreskuratzeko plan bat abian jartzea.
- Udaleko lan-poltsak sortzea, ordezkapenak eta langile berriak kudeatzeko.
- Obra eta zerbitzu publikoen kontratazioa lehiaketa publiko bidez egiten dela bermatzea, irizpide orokor gisa.
- Kontratazio publikoan, klausula sozialak (jendarte- eta lan-harremanak, ingurumena, hizkuntza-harremanak, berdintasuna, etab.) eta horiek bermatzeko kontrol-mekanismoak bete daitezen eskatzea.
- Toki-Garapeneko Agentziak ebaluatzea, koordinatzea eta hobetzea.
- Anbizio handiko tokiko enplegu-planak aktibatzea, Barakaldoko langabezia estrukturalaren datuei erantzuteko.
- Aparkalekuen kudeaketa publikoa berreskuratzea.

Tokiko merkataritza

- Hobekuntzak tokiko merkataritza-bonuetan, zenbatekoak eta programa-kopurua handituz, eskaintza merkataritzarako data egokienetara egokituz, izapideak sinplifikatuz, merkatariei itzulketak ahalik eta gehien aurreratuz, etab.
- Lonjen eta lokalen alokairuak merkatzeko programa bat abian jartzea, OHZ hutsik dauden lonjetara igoz eta alokairuak mugatzen dituzten beste neurri osagarri batzuk aztertuz.
- Energia-kontsumoa murrizteko programa bat abian jartzea, ostalaritzako saltokiak eta lokalak LED teknologiarara pasatzea, etxetresna elektriko eraginkorrak erostea, isolamendu termikoko neurriak eta energia aurrezteko beste neurri batzuk bultzatuz.

- Merkatarien elkarreentzako laguntza handitzea, kualifikazioa hobetzeko eta inguruneak dinamizatzeko programen bidez zuzeneko laguntzak handituz.
- Jarduera profesionalak pisuetatik lonjetara eramateko programa bat abian jartzea, kalean bertan jarduera ekonomikoa sortuz eta etxebizitzak libre utziz.
- Azalera handietarako eta logistika-zentroetarako lurzorua birkalifikatzeari aurka egitea. Formatu handiko merkataritza-instalazio berriak onartzeko garaian, araudiaren formularik murriztaileena aplikatuta.
- Merkataritza-gune handiei zerga berdea ezartzea.
- Laguntzak eta desgrabazioak jasotzeko eskubidea ematen duten denda historikoak aitortzea.
- Egungo udal-merkatua biziberritzea.
- Hiriguneko zamalanetako guneetan ordutegiak berrantolatzea, banatzaileen lana eta saltoki txikien hornidura errazteko.
- Jaiegunetan irekitzeko lizentziak mugatzea, atsedeen hartzeko eskubidea defendatuz.
- Profesionalentzako eta ostalarientzako TAO txartel bat sortzea, egunean gehienez 1,29 euroko kostua izango duena.

Berdintasunaren erronka

Neoliberalismoa demokrazia pribatizatzen eta azken 200 urteetako desberdintasun sozial handienak sortzen ari da. Dualizazio sozialak kohesio soziala hausten du eta, gainera, egoera okerragoan jartzen gaitu egin behar diren aldaketak egiteko. Desberdintasunak areagotzeak eragina izango du gure komunitateetan; horregatik, justizia sozialaren eta kohesio sozialaren aldeko borroka izango da gure udalgintzaren gidari nagusietako bat.

Asistentzialismo hutsetik haratago, jendea erdigunean jartzeko proposamenak eta ekimenak ditugu gure herrietan. Etorkizun duina eskaini nahi diegu eta eskaini ahal diegu jendartetik kanpo geratzeko arriskuan dauden pertsona horiei guztiei. Garai polarizatu hauetan, jendarte eta berdintasun politiketan aurrera egiteko gakoa inbertsioa da.

Udal batek eskain dezakeen babes soziala dirulaguntzen kudeaketatik haratago doa. Bizitza duina izateko aukera eskaini behar diegu pertsona ahulei. Horretarako, pertsona horiei zuzendutako programa integralak jarriko ditugu abian; programa horiek pertsona horiekin batera garatuko ditugu, hainbat arlotan (prestatuntza, lan-aukerak, garapen pertsonala, jendarte-harremanak, osasun-egoera, etab.).

Era berean, mendekotasuna duten pertsonen sistema publikoaren bidez arreta ematearen aldeko apustu garbia egin nahi dugu. Horrek bermatuko du adineko pertsona bakar bat ere ezingo dela baztertu baliabide faltagatik eskatutako arreta eskuratzeko orduan.

Gazteria

- Lasarre eta Gorostizako kirol-instalazioetan gimnasio publiko bat irekitzea, egungo kirol-joerekin bat datozen zerbitzuak, eskolak eta entrenamenduak eskaintzeko.
- Gazteek edo edozein talde herrikoik bere proiektuak eta jarduerak (artistikoak, ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, sortzaileak, kulturalak, teknologia berriak, etab.) Udalarekin partekatutako kudeaketa eta erantzukizunetik garatu ahal izan ditzan, gune ireki bat sortzea (Portuko Merkatuaren edo Gernikako Astraren antzekoa).

- 14 eta 35 urte bitarteko gazteen osasun mentala hobetzeko Psikobonoak programa prebentiboa abian jartzea. Udalarekin hitzartutako psikologiako profesionalen banakako laguntza psikologikorako, urtean 10 saio diruz laguntzeko txartela.
- "Lonjeroak" proiektua abian jartzea. Jabeen, komunitateen eta gazteen arteko bitartekaritza, erabiltzeko baldintza egokiak dituzten espazioak direla bermatuz, proiektu honen helburuen artean dago.
- Eskolak euskaraz indartzeko zerbitzua eta programa abian jartzea behar duten ikasleentzat, langabezia dauden Barakaldoko gazteak kontratatuz.
- Gazteentzako etxebizitza-erakinen programa aktibatzea. Gazteentzako prezio baxuko alokairuko egoitza izango den eraikin bat eraikitzea.
- Emantzipaziorako bidea hasi nahi duten gazteak lotuko dituen etxebizitza partekatuko udal-programa bat abian jartzea.
- Gazteei eragiten dieten erabakiak hartzeko erreferendum lotesleak.
- Apustu-etxeen udal-lizentziak mugatzea.
- Gazte Gaua programa abian jartzea, hilero.
- *Ni BRK- Influencer* ere: euskarazko edukiak sortzeko programa.
- Barakaldoko gazte-politiken funtsezko printzipio gisa, gazteek beren proiektuak gara ditzaten tresnak eta baliabideak ematea.

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak

- Mendekotasun-arriskuan dauden edo mendekotasun-graduak 1. maila duten adinekoentzako egoitza publiko bat abian jartzea.
- Auzo bakoitzean eguneko zentro publiko bat sortzea, eta egungoak hobetzea.
- Jendarte-laguntzako eskaerak, mendekotasun-izapideak eta abar sinplifikatzea eta arintzea.

- Etxez etxeko catering-programak abiaraztea bakardade-egoeran dauden adineko pertsonei, eguneko zentroen bidez.
- Jantoki komunitarioen sorrera bultzatzea, bakardade-egoeren prebentzio gisa.
- Jantoki sozialen kudeaketa zuzena lehenestea.

Jendarte politika

- Oinarrizko Jendarte Larrialdietako Zerbitzu bat sortzea, berehala erantzuteko prozesuekin eta bitartekoekin.
- Dauden laguntza guztiei buruzko informazio-estrategia bat prestatzea, Udala izan dadin balizko erabiltzaileengana hurbildu eta baliabide instituzionalen berri emango diena.
- Etxegabetasun-egoeran dauden pertsonen prebentzioari eta arretari buruzko udal-estrategia planifikatzea, egungo laguntza-sare komunitarioak kontuan hartuta.
- Jendarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) eskaera guztiei erantzuteko behar beste partida ekonomiko bermatzea, familiaren oinarrizko premiak asetzerantz bideratuta daudenak.
- Herritarren oinarrizko premiei erantzun egokia emango dieten zerga-politika progresiboak aktibatzea, modu proportzionatuan, udal-zergetako hobarien eta/edo dirulaguntzen bidezko diru-sarreraren arabera.
- Udalak eskaintzen dituen zerbitzu publikoen doakotasunerantz aurrera egitea, Kbusaren eta kirol-zerbitzu publikoen doakotasuna lehentasunezkoa izanik.
- Gastu publikoa murriztea, propaganda instituzionalaren, inaugurazioen, prentsaren eta abarren partidak kenduz.
- Udalak ekonomia sozial eta solidarioaren aldeko apustua egitea, besteak beste kooperatibismoaren edo banka etikoaren aldeko urratsak emanez.
- Zinegotzien soldata jendartearen errealitatera egokitzea.

Udaltzaingoa

- Hurbileko udaltzaingoaeren ereduaren alde egitea, auzoko poliziaren irudia indartuz.
- Auzoko poliziak merkatariekin, ostalaritzako langileekin, auzo-elkarteekin eta ikastetxeekin duen harremana sustatzea, eta aldian-aldian haiekin bilerak egitea, kezkak trukatzeko. Posta elektronikoko baten bidezko zuzeneko komunikazio-sistema bat ezartzea, denbora errealean elkarreragin ahal izateko.
- Udaltzaingoko agenteen kopurua pixkanaka egokitzea Europar Batasunak gomendatutako ratoria.
- Udaltzaingoaeren etorkizuneko agenteak hautatzeko ereduaren alde egitea, Udalak berak sortutako LEPen bidez.
- Udal-eraikin publikoen segurtasun pribatuaren ordez, bigarren jarduerako egoeran dauden udaltzainak jartzea; hau da, patruila-zerbitzuak egiten ari ez diren langileak.

Pertsonaren mailako etxebizitza-eredua

- Etxebizitzak auzoka birgaitzeko plan integral bat abian jartzea, energia-eraginkortasuna eta irisgarritasuna kontuan hartuta.
- Etxebizitza-parke publikoa handitzea, hirigintza-eragiketa pribatuetatik datozen udal-pisuen bidez.
- Belaunaldien arteko etxebizitza komunitarioen bidez premia pertsonalei eta komunitate-espazioei erantzungo dieten etxebizitzak bultzatzea.
- Etxebizitza partekatua erabiltzeko udal-programak abian jartzea.
- Gazteen emantzipazioa erraztea, gazteentzako kostu txikiko alokairurako etxebizitza-eraikin bat eraikiz.
- Udalerrian etxebizitzaren arloan tenkatuta dauden eremuetan oinarritutako azterlan bat egitea. Barakaldo izan behar da etxebizitzari buruzko lege berriaren aldeko lehen herrietako bat legea indarrean sartzen denean.

- Alokairurako etxebizitza hutsen erabilera sustatzea.
- Udalak etxebizitza hutsen jabeen eta Alokabideren arteko harremana sustatzea. Jabe horiek informazio guztia izan behar dute beren etxebizitza alokairuan jartzeak dakartzan onurei buruz, eta etxebizitza horiek alokairu sozialean eskaintzea erraztu behar dute.
- Etxegabetzeen aurkako udal-protokoloa betetzea, dela jabetzako etxebizitzarena, dela alokairuko etxebizitzarena.
- Aldundiak etxebizitzak mugikortasun- eta segurtasun-beharretara egokitzeko ematen dituen laguntzen tramitazioa bizkortzea Udaletik.
- Eretza birdefinitzea, etxebizitza eskuragarriak sustatzeko tresna eraginkor gisa eta Barakaldoko herritarrei etxebizitza duin bat eskuratzen laguntzeko helburua betetzeko.
- Babes lokaleko etxebizitza bat eskuratzeko gutxieneko baldintza ekonomikoak jaitea.
- "Housing first" proiektu pilotuak ezartzea, etxerik gabeko pertsonek etxebizitzak eskuratu ahal izatea.

ehbildu